

Proiektuetarako jarduerak | 2. Blokea : Edukiak sortzea

Bigarren Hezkuntza. 16 - 18 urte

RadioActiva



Bigarren Hezkuntza

16 - 19 urte



Maila

Ertaina

Denbormalizazioa



14 saio

- 1. Fasea: 4 saio
- 2. Fasea: 8 saio
- 3. Fasea: 2 saio



Kideak

4 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Nazioarteko taldeetan antolatuta, ikasleek irrati bat sortuko dute interneten. Gazteei eragin eta interesatzen zaizkien erreportaje, eztabaida eta elkarrizketak izango ditu. Horretarako:

- Ekipo bakoitzeko taldeek irakasleek proposatutako gai bati buruzko edukiak proposatuko dituzte, informazioa bilatu eta aukeratuko dute elkarren artean irratsaio bat prestatzeko.
- Elkarrekin hitz egingo dute ikerketa lana antolatu eta banatzeko, gidoia idazteko eta irratsaioa editatzeko.
- Ekipo bakoitzak ikasle-tutoreak izango ditu. Haien prozesuan argibideak emango dizkiete, gidoiak berrikusiko dituzte eta aurrera jarraitzera animatuko dituzte.
- Ekipoek interneteko irrati batera podcastak igoko dituzte, baita irudi bat eta edukien deskripzio labur bat ere.
- Amaitzeko, ikasleek irratsaioak entzun eta komentatuko dituzte.

JARDUERAREN XEDEA

- Gazteei kezka eta jakin-mina eragiten dieten gaiei buruzko informazioa komunikabideetan bilatu, aukeratu eta aztertzen ikastea.
- Ahozkotetasuna eta sormena garatzea eta, horrela, informazio hori eraldatzea nazioarteko ekipoetan programa kolaboratiboan izango dituen irrati bat sortzeko.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea

1. Urratsa: Baliabideen bankua

- Irakasleek 1. orrialde nagusia irekiko dute. *BALIABIDEEN BANKUA* izena izango du eta [Pearltrees](#)-en orrialdeak jasoko ditu. Hortik, copyright gabeko irudiak eta audio-artxiboak jaitz daitezke.



- Irakasleek 2. orrialde nagusia irekiko dute. *ERREDAKTOREEN EKIPOA* izena izango du eta, bertan, jasoko dira gaiak, ekipo bakoitzeko taldeetan dauden ikasleen izenak eta eskarmentu gutxiagoko ikasleen gida izango diren ikasle-tutoreen izenak.



- 3. orrialde nagusia sortuko da. *ERREDAKZIO-ARETOAK* izena izango du eta erredaktoreen ekipoek egin beharreko zereginak jasoko ditu.



- Irakasleek ekipo bakoitzeko azpi-orrialde bat sortuko dute eta, haietan, honakoak egongo dira:

- Komunikatzeko foro bat
- Zereginak banatzeko taula bat
- Driverako dokumentu partekatu baterako esteka, irratsaioaren gidoia idazteko
- Grabazioak igotzeko Padleten horma digital bat



Foroak sortzeko tutoriala: <http://etwinning.es/gestion-de-foros-en-el-twinspace/?lang=es>

Googleko dokumentuei buruzko tutoriala: <https://www.youtube.com/watch?v=SP4VnGA5rTg>



2. Fasea: Praktikan jartzea

1. Urratsa: Ideia-jasa

- Ekipo nazional bakoitzak bere ekipoari foroan egokitu zaion gai komunari buruzko eduki eta baliabideak proposatuko ditu. Elkarri lagunduko diote eta beste taldeek emandako informazioa komentatuko dute.
- Ikasle-tutoreek eta irakasleek orientabideak emango dizkiete, gaiari buruzko ideiak eta estekak proposatuz eta ikuspuntu sortzaile eta originalago bat ematera bultzatuz.



2. Urratsa: Ikertzea

Talde nazionalak informazioa bilatuko dute haien programarako. Horretarako, komunikabideetan bilatuko dute eta komunitateko aditu eta kideekin harremanetan jarriko dira elkarriketak egiteko.

3. Urratsa: Zirriborroa idaztea

- o Ekipoek programaren gidoia elkarrekin idatziko dute haien lan-orrialdean partekatutako Google dokumentuan. Sakatu [hemen](#) RadioActive T.E.A.M. proiektuaren gidoiaren eredu bat ikusteko.

4. Urratsa: Gidoiak zuzentzea

- o Ikasle-tutoreek testua berrikusiko dute, egile-eskubideak errespetatzen direla ziurtatuko dute eta zirriborroa iradokizun moduan editatuko dute. Talde nazionalak tutoreen iradokizunei kasu egingo diete.



Google dokumentuak editatzeko tutoriala: <https://www.youtube.com/watch?v=8zAkp1tH4WU>

5. Urratsa: Logoa aukeratzea

- o 4. orrialde nagusia irekiko da. *IRRATIAREN LOGOA* izena izango du eta proiektua irudikatuko duen logoa sortzeko jarraibideak izango ditu. Irakasleek Tricider bat txertatuko dute ikasleek logoak, irudiaren deskripzioarekin batera, igo ditzaten. Ikasle guztiek haien logorik gogokoenak bozkatu eta komentatu beharko dituzte. Sakatu [hemen](#) RadioActive T.E.A.M. proiektuaren adibide bat ikusteko.



Triciderren tutoriala: <https://www.youtube.com/watch?v=alanRYhKln4>

6. Urratsa: Sarrera eta itxiera aukeratzea

- o 5. orrialde nagusi bat sortuko da. *SARRERA ETA ITXIERA* izena izango du ta, bertan, jarraibideak eta Padlet horma bat txertatuko dira talde nazionalak iradokizunak igo ditzaten proiektua aurkezteko sarrera bat eta entzuleak agurtzeko itxiera bat sortzeko. Ikasle guztiek haien pistarik gogokoenak

komentatuko dituzte. Iruzkin gehien dituzten sarrera eta amaiera izango dira irratsaio guztietan erabiliko direnak.



7. Urratsa: Podcastak sortzea

- Talde bakoitzak bere funtzioa izango du, eta ekipoaren azpi-orrialdeko taulan zein den adierazi beharko du: programaren eduki guztiak aurkeztuko dituen sarrera bat idatzi eta grabatzea, melodia bat bilatzea, pistak programa bakar batean lotzea eta Soundcloudera igotzea irudi eta deskripzio labur batekin batera. Taulan haien zeregina amaitu duten edo ez adierazi beharko dute.



- Ekipo bakoitzeko taldeek elkarrizketa, eztabaida edo erreportaje bat grabatuko dute. Gero, audio-artxibo bakar batean lotuko dituzte eta programa guztiei hasiera emango dien sarrera gehituko dute (nork bere ekipoarena). Ondoren, parte-hartzeak bereiztuko dituen melodia gehituko dute, baita ekipoaren itxiera eta itxiera orokorra ere; horretarako, [Audacity](#) aplikazioa erabiliko dute.



Audacityren tutoriala: <https://www.youtube.com/watch?v=8zAkp1tH4WU>

Fase 3: Datuak biltzea eta jakitera ematea

1. Urratsa: Podcastak argitaratzea

- Ekipo bakoitzeko ikasle-tutoreek Soundclouden txertatutako podcastak eta deskripzioetako testuak berrikusiko dituzte. Halaber, ziurtatuko dute erabilitako irudia eta audioa copyrightik gabekoak direla eta behar bezala aipatu direla.
- Irakasleek kontu komun bat sortuko dute Soundcloud aplikazioan eta azpi-orrialdeetan ekipo bakoitzaren erabiltzaile-izena eta pasahitza utziko dute.
- Ekipoek pista guztiak batu eta Soundcloudera igoko dute, copyright gabeko irudi bat eta programaren edukien deskripzio batekin batera. Sakatu [hemen](#)

RadioActive T.E.A.M. proiektuaren Soundclouden egin zen irratsaio baten adibidea ikusteko.



Soundclouden tutoriala: <https://www.youtube.com/watch?v=MsIV1Ky13dY&feature=youtu.be>

Kompetentzia digitala: Segurtasuna

Datu pertsonalen eta nortasun digitalaren babesa.

16 urtetik gorako ikasleek hainbat aplikaziotan kontu pertsonalak sor ditzaketen arren, gomendatzen da kanpo-aplikazioetan proiekturako kontu komunak sortzea, ikasleek haien datu pertsonalak konpartitzea ekidin egiten baita horrela.

2. Urratsa: Aldizkaria jakitera ematea

- 6. orrialde nagusia irekiko da. *RADIOACTIVA ON-LINE* izena izango du eta, bertan, irratia Twinspacean txertatuko da. Horrez gain, proiektuaren egunerokoan jakinaraziko da.
- Esteka ikastetxeen webguneetan eta sare sozialetan partekatuko da. Twitterren proiektuarentzako hashtag bat sortuko da.

3. Urratsa: Ebaluazioa

- Ikasleek irratsaioak entzun eta Padleteko horman komentatuko dute zein izan den interesgarriena eta haien ikaskideak zorionduko dituzte.



PRODUKTUA(K)/AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)

Online irratia eztabaida, elkarrizketa eta erreportajeekin.

TWINSPEACEKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

- Twinspace: proiektuaren egunerokoa, foroa, Twinspaceko orrialdeak
- Podcastak igotzeko aplikazioa: Soundcloud
- Audio-artxiboak grabatu eta editatzeko aplikazioa: Audacity
- Horma digitalak: Padlet
- Inkestarako aplikazioa: Tricider

BENETAKO PROIEKTUETAN EGINDAKO JARDUEREN EREDUA(K) (PRAKTIKA ONEN EREDUAK)

- **Jarduerarako sortu den Twinspace-erako**
esteka: <https://twinspace.etwinning-training.net/10382/home>
- **RadioActive T.E.A.M.**
proiektua: <https://twinspace.etwinning.net/24188/home>
- **Esteka RadioActive T.E.A.M. proiektuari buruzko artikulu eta irratsaioak dituen aldizkari digitalera:** <https://madmagz.com/magazine/1111388#/>
- **Esteka RadioActive T.E.A.M. proiektuaren Soundcloud-eko irratira:** <https://soundcloud.com/user-846780908>
- **Jarduerarako sortu den Twinspace-erako**
esteka: <https://twinspace.etwinning-training.net/10382>